Sormen Industrien
**enpresa-konfiantza adierazleak**

**Indicadores de confianza empresarial**
de las Industrias Creativas

2020ko emaitzak eta 2021erako aukerak
Resultados del 2020 y perspectivas para el 2021

2021eko iraila / Septiembre de 2021

# Aurkibidea

**Sarrera** ...................................................... 3.

**Metodologia** ........................................... 3.

Kontsulta panela ........................................... 3.

Denbora-eremua ........................................... 4.

Datu-bilketa aldia ......................................... 4.

Adierazleen kalkulua ..................................... 4.

**Emaitzak** ..................................................... 5.

Fakturazioaren bilakaera .............................. 5.

Egoera ........................................................... 6.

Aurreikuspenak .............................................. 8.

EKA eta EKAA .............................................. 10.

Enpresa jardueran eragiten duten faktoreak .. 11.

Giza baliabideak ......................................... 12.

Covid-19aren pandemiaren eragina ....... 13.

# Índice

**Introducción** ............................................3.

**Metodología** ............................................ 3.

Panel de consulta ........................................3.

Ámbito temporal ...........................................4.

Período de recogida de datos ...................4.

Cálculo de indicadores ................................4.

**Resultados** ................................................ 5.

Evolución de la facturación.........................5.

Situación .........................................................6.

Expectativas....................................................8.

ICE e ICEA.....................................................10.

Factores limitadores de la actividad.........11.

Recursos humanos .......................................12.

Efecto de la pandemia por Covid-19.......13.

## Sarrera

Sormen Industrien sektoreko Enpresa-Konfiantza Adierazleen (EKA, hemendik aurrera) lehendabiziko estatistika da hau, Kulturaren Euskal Behatokiak (KEB-OVC) egina.

Kulturaren Euskal Behatokiak Arte eta Kultur Industrien sektorean egiten duen Enpresa-Konfiantza Adierazleen estatistikaren parekoa da eragiketa hau eta helburua Sormen Industrietako enpresek negozioaren egungo egoeraz eta epe laburrerako aurreikuspenez dituzten pertzepzioak ezagutzea da.

Horretarako, enpresa kolaboratzaileen panel bat osatu da eta panelaren bitartez jasotako datuekin sormen sektore ezberdinetan egoera eta espektatiba adierazleak kalkulatu dira. Ondorengo sormen sektoreetako enpresekin osatu da panela: Hizkuntzaren industria, Bideojokoak, Diseinua, Publizitatea, Moda eta Arkitektura.

Adierazleen kalkulurako metodologia, Estatistikako Institutu Nazionalak enpresa konfiantza neurtzeko erabiltzen duen bera da. Adierazle horiez gain, giza baliabideen inguruko informazioa ere biltzen da: enpresan lan egiten duen pertsona kopurua eta enpresan ardura duten pertsona kopuruaz galdetu zaie; beti ere, emakumezko eta gizonezkoen arteko bereizketa eginez.

Covid-19ak eragindako pandemiak Sormen Industrietako enpresei nola eragin dien ere aztertu nahi izan da, eta horretarako Covid-19ak nola eragin dien ezagutzeko galdera egin zaie, baita pandemiaren aurrean enpresek hartutako neurrien inguruko galderak ere.

## Metodologia

### Kontsulta panela

71 enpresek osatutako lagin adierazgarri bat osatu da; panel hori ondorengo aukeraketa irizpideei jarraiki osatu da: sektorea eta enpresaren tipologia, fakturazioa eta lurraldea. Informazio bilketarako lanak Siadeco enpresak egin ditu.

| Sormen sektorea | Establezimenduak |
|---|---|
| Hizkuntzaren industria | 14 |
| Bideojokoak | 4 |

## Introducción

Esta es la primera estadística de Indicadores de Confianza Empresarial (en adelante, ICE) de las Industrias Creativas realizada por el Observatorio Vasco de la Cultura (KEB-OVC).

Se trata de una estadística similar a la que el Observatorio Vasco de la Cultura realiza en el sector de las Artes e Industrias Culturales y su principal objetivo es conocer las percepciones que las empresas de las Industrias Creativas tienen entorno a la situación actual del negocio y sobre las expectativas a corto plazo.

Para ello se ha configurado un panel de empresas colaboradoras y a través de los datos obtenidos mediante ese panel de consulta se han calculado los indicadores ICE de los diferentes subsectores creativos: Industria de la lengua, Videojuegos, Diseño, Publicidad, Moda y Arquitectura.

La metodología aplicada, corresponde a la que utiliza el Instituto Nacional de Estadística para el cálculo de indicadores de confianza empresarial. Además de esos indicadores también se recopila información relativa al personal que trabaja en los establecimientos: el número de personas que trabaja en la empresa, y el número de personas que ocupa cargos de responsabilidad en la toma de decisiones, diferenciando entre mujeres y hombres.

También se ha querido analizar cómo ha afectado la pandemia provocada por Covid-19 a las empresas de las Industrias Creativas. Por ello, se han añadido preguntas sobre cómo les ha afectado el Covid-19, así como sobre las medidas adoptadas por las empresas ante la pandemia.

## Metodología

### Panel de consulta

Se ha configurado una muestra estratégica de 71 empresas utilizando estos criterios de selección: sector y tipología de empresa, facturación y territorio. La recogida de datos lo ha desarrollado la empresa Siadeco.

| | Establecimientos |
|---|---|
| Industrias de la lengua | 14 |
| Videojuegos | 4 |

| | |
|---|---|
| Diseinua | 11 |
| Publizitatea | 24 |
| Moda | 6 |
| Arkitektura | 12 |
| **Guztira** | **71** |

## Denbora eremua

Eragiketa estatistiko hau urtean behin egingo da, amaitzen den urtearen datuekin eta hasi berria den urterako espektatibekin. Lehen kontsulta honetako adierazleak 2020ko emaitzei eta 2021eko espektatibei dagozkie.

## Datu bilketa aldia

Edizio honetako datu bilketa 2021eko martxoaren 16an hasi zen eta 2021eko maiatzaren 10ean amaitu zen.

## Adierazleen kalkulua

***Adierazle bakoitzaren saldoa***

Erantzun baikorren eta ezkorren portzentajeen arteko aldea da.

***Egoera balantzea***

Negozioaren emaitza ekonomikoaren inguruko erantzunetik abiatuta kalkulatzen da. Amaitu berri den aldiari buruzko erantzun baikorren eta ezkorren portzentajeen arteko saldoa edo aldea da.

***Aurreikuspenen balantzea***

Negozioaren emaitza ekonomikoaren inguruko erantzunetik abiatuta kalkulatzen da. Hasi berri den aldiari buruzko erantzun baikorren eta ezkorren portzentajeen arteko saldoa edo aldea da.

***Enpresa-Konfiantza Adierazlea (EKA) eta Enpresa-Konfiantza Adierazle Armonizatua (EKAA)***

Negozioaren emaitza ekonomikoaz galdetuta lortutako emaitzetan oinarrituta kalkulatzen dira. EKA egoera saldoa eta aurreikuspenen saldoaren batez besteko geometrikoa da, emaitzak behar bezala normalizatuta.

EKAtik abiatuta EKAA kalkulatzeko, oinarritzat 2020a hartzen da.

Kalkuluaren xehetasunak ondorengoak dira:

**Enpresa-Konfiantza =**

$$= \text{EKA} = \sqrt{(\text{Egoera} + 200) \times (\text{Aurreikuspenak} + 200)} - 200$$

**Enpresa-Konfiantza Adierazle Armonizatua =**

$$= \text{EKAA} = \frac{EKA+200}{\text{EKA1Seihil2015}+200} \times 100$$

| | |
|---|---|
| Diseño | 11 |
| Publicidad | 24 |
| Moda | 6 |
| Arquitectura | 12 |
| **Total** | **71** |

## Ámbito temporal

Esta operación estadística se va a realizar anualmente, con datos del año saliente y expectativas para el año entrante. Los indicadores de esta primera consulta corresponden a los resultados del 2020 y a las expectativas para el 2021.

## Periodo de recogida de datos

La recogida de datos de esta edición empezó el 16 de marzo de 2021 y finalizó el 10 de mayo de 2021.

## Cálculo de indicadores

***Saldo de cada variable***

Se calcula como la diferencia entre el porcentaje de respuestas favorables y el porcentaje de respuestas desfavorables.

***Balance de Situación***

Se obtiene a partir de la respuesta a la pregunta sobre el resultado económico del negocio. Se trata del saldo o diferencia entre el porcentaje de respuestas favorables y el de desfavorables.

***Balance de Expectativas***

Se obtiene a partir de la respuesta a la pregunta sobre el resultado económico del negocio. Se trata del saldo o diferencia entre el porcentaje de respuestas favorables y el de desfavorables.

***Indicador de Confianza Empresarial (ICE) e índice de Confianza Empresarial Armonizado (ICEA)***

Se construyen a partir de la respuesta a la pregunta sobre el resultado económico del negocio. El ICE es la media geométrica del saldo de situación y del de expectativas, normalizando adecuadamente los resultados.

Partiendo del ICE el ICEA se calcula cogiendo como período base el 2020.

Los detalles del cálculo son los siguientes:

**Confianza empresarial =**

$$= \text{ICE} = \sqrt{(\text{Situación} + 200) \times (\text{Expectativas} + 200)} - 200$$

**Índice de Confianza empresarial armonizado =**

$$= \text{ICEA} = \frac{ICE+200}{\text{ICE1Sem2015}+200} \times 100$$

## Emaitzak

### *Negozioaren fakturazioaren bilakaera*

Negozioaren fakturazioaren bilakaeraren aurreko urtearekiko alderaketak, emaitza negatiboa eman du.

2020an eta aurreko urtearekin alderatuta, 2019arekin, Sormen Industrietako enpresen fakturazioaren bilakaera saldoa -39 puntukoa da. Hau da, beren negozioaren fakturazioa jaitsi egin dela adierazi duten enpresak fakturazioa igo egin dela esan dutenak baino gehiago izan dira; zehazki, establezimenduen % 58k fakturazioa aurreko urtearekiko jaitsi egin dela adierazi du eta % 18 izan da igo egin dela esan dutenak.

Egoera aldakorra da sektorez sektore: fakturazioaren bilakaerari buruzko emaitzarik negatiboena izan duten sektoreak Moda eta Hizkuntzaren industria izan dira (-67 eta -64 puntuko saldoarekin, hurrenez hurren): bi sektore horietan fakturazioa jaitsi egin dela aitortu du 10etik 7 enpresak baino gehiagok.

Publizitatearen sektoreko eta Arkitekturaren sektoreko enpresek ere fakturazioaren bilakaeraz balorazio negatiboa egin dute: saldoa -42 puntukoa da bi sektoreetan. Saldoa negatiboa izan arren balorazioa ez da hain ezkorra Diseinuaren sektoreko enpresetan: saldoa -9 puntukoa da baina enpresen laurdenak baino gehiagok, % 27k, 2020an fakturazioa igo egin dela adierazi du.

Bideojokoen sektorea da fakturazioaren bilakaeraz balorazio positiboena egin duen sektorea: 25 puntuko saldoa lortu du sektoreak eta enpresen erdiak fakturazioa igo egin dela adierazi du.

Fakturazioaren batez besteko jaitsiera guztira % 33koa izan da eta batez besteko igoera % 25ekoa.

## Resultados

### *Evolución de la facturación del negocio*

La consulta sobre la evolución de la facturación del negocio arroja resultados negativos en cuanto a la evolución respecto al año anterior.

El saldo de la evolución de la facturación del 2020 respecto al año anterior (2019) de las empresas de las Industrias Creativas es de -39 puntos. Es decir, las empresas que han indicado que la facturación del negocio ha disminuido superan a las que han indicado que la facturación ha aumentado; concretamente el 58 % de las empresas ha señalado una disminución de la facturación respecto al año anterior, mientras que el 18 % un aumento.

La situación es cambiante por sectores: los sectores con un resultado más negativo en cuanto a la evolución de la facturación son Moda e Industrias de la Lengua (con un saldo de -67 puntos y -64 puntos respectivamente), sectores en los que más de 7 de cada 10 empresas reconocen un descenso de la facturación.

Las empresas del sector Publicidad y Arquitectura también valoran negativamente la evolución de la facturación, con un saldo de -42 puntos en ambos sectores. Aunque el saldo es negativo la valoración es menos pesimista en las empresas del sector del Diseño: el saldo es de -9 puntos, pero más de una cuarta parte de las empresas, el 27 %, señala un aumento de la facturación en el 2020.

El sector de Videojuegos es el que mejor valoración hace de la evolución de la facturación, con un saldo de 25 puntos, y la mitad de las empresas afirma que la facturación ha subido.

El descenso medio de la facturación ha sido del 33 % y el incremento medio del 25 %.

| | Erreferentzia aldia – Período de referencia: 2020 | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Hizkuntzaren industria / Industrias de la lengua | Bideojokoak Videojuegos | Diseinua / Diseño | Publizitatea / Publicidad | Moda / Moda | Arkitektura / Arquitectura | Guztira/Total |
| Igo egin da/ Ha aumentado (%) | 7,1 | 50,0 | 27,3 | 20,8 | 16,7 | 8,3 | **18,3** |
| Mantendu egin da/ Se ha mantenido (%) | 21,4 | 25,0 | 36,4 | 16,7 | 0,0 | 25,0 | **21,1** |
| Jaitsi egin da/ Ha disminuido (%) | 71,4 | 25,0 | 36,4 | 62,5 | 83,3 | 50,0 | **57,7** |
| Saldoa (puntuak) / Saldo (puntos) | -64,3 | 25,0 | -9,1 | -41,7 | -66,7 | -41,7 | **-39,4** |

| | Igoera/jaitsiera % – % de aumento/descenso: 2020 | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Hizkuntzaren industria / Industrias de la lengua | Bideojokoak / Videojuegos | Diseinua / Diseño | Publizitatea / Publicidad | Moda / Moda | Arkitektura / Arquitectura | Guztira/ Total |
| Batez besteko igoera %/ % de aumento medio | 20,0 | 20,0 | 52,5 | 12,8 | 10,0 | - | **24,7** |
| Batez besteko jaitsiera %/ % de descenso medio | 22,7 | 40,0 | 40,0 | 28,7 | 53,8 | 40,4 | **33,0** |

## Egoera:
amaitu den urtearen inguruko balorazioa

2020ko emaitza ekonomikoa ezkorra izan dela adierazi duten enpresak emaitza baikorra edo normala izan dela adierazi dutenak baino gehiago izan dira. Zehazki enpresen erdiak baino gehiagok, % 54k, adierazi du bere enpresaren 2020ko emaitza negatiboa izan dela; normala edo ohikoa izan dela adierazi dutenak % 28 izan dira eta ezkorra izan dela adierazi dutenak % 17. Hori dela eta egoera balantzea, hau da erantzun baikorren eta ezkorren portzentajeen arteko aldea negatiboa da: -37 puntukoa hain zuzen.

2020ko egoeraren balorazioa negatiboa da sektore guztietan. Moda eta Publizitatea dira baloraziorik negatiboena egin duten sektoreak, -67 eta -42 puntuko saldoarekin. Jarraian Hizkuntzaren industriaren sektorea (-36 puntu) eta Diseinua daude (-27 puntu), eta azkenik, Bideojokoak (-25 puntu) eta Arkitektura (-25 puntu).

Estatistikaren lehen edizio honetan izandako erantzunetan eragin zuzena izan du Covid-19ak eragindako pandemiak. Kontuan izan behar da 2020 urtea bete betean harrapatu zuela Covid-19ak eragindako pandemiak eta enpresen egoera, eta ondorioz, estatistika honetan lortutako emaitzak, ohiko egoera batean lortuko liratekeen emaitzetatik asko aldendu daitezkeela.

## Situación:
valoración empresarial del año saliente

Las empresas que señalan que el resultado económico en 2020 ha sido desfavorable han sido más que las que han señalado que el resultado ha sido favorable o normal. Concretamente más de la mitad de las empresas, el 54 %, señala que el resultado de su empresa en 2020 ha sido negativo; quienes señalan que ha sido normal o habitual han sido el 28 % y quienes señalan que ha sido desfavorable el 17 %. Por ello, el balance de situación, es decir, la diferencia entre los porcentajes de respuestas positivas y negativas es negativa: -37 puntos.

La valoración de la situación en 2020 es negativa en todos los sectores. Moda y Publicidad son los sectores con una valoración más negativa, con un saldo de -67 y -42 puntos. Le siguen el sector de Industrias de la Lengua (-36 puntos) y Diseño (-27 puntos), y por último, Videojuegos (-25 puntos) y Arquitectura (-25 puntos).

Las respuestas de esta primera edición de la estadística de confianza empresarial están influidas directamente por la pandemia causada por Covid-19. Hay que tener en cuenta que la pandemia y la situación de las empresas a causa del Covid-19 afectan directamente en los resultados de esta estadística; así los resultados pueden distanciarse mucho de los que se obtendrían en una situación normal.

Egoera - Situación (2020)



| Egoera balantzea – Balance de situación: 2020 | Hizkuntzaren industria / Industrias de la lengua | Bideojokoak / Videojuegos | Diseinua / Diseño | Publizitatea / Publicidad | Moda / Moda | Arkitektura / Arquitectura | Guztira/ Total |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Baikorra/Favorable (%) | 14,3 | 25,0 | 27,3 | 16,7 | 16,7 | 8,3 | **16,9** |
| Normala/Normal (%) | 35,7 | 25,0 | 18,2 | 25,0 | 0,0 | 50,0 | **28,2** |
| Ezkorra/Desfavorable (%) | 50,0 | 50,0 | 54,5 | 58,3 | 83,3 | 33,3 | **53,5** |
| Saldoa (puntuak) / Saldo (puntos) | -35,7 | -25,0 | -27,3 | -41,7 | -66,7 | -25,0 | **-36,6** |

Negozioan eragiten duten aldagai desberdinen bilakaeraren balorazioari dagokionean, salmentetan izandako jaitsiera azpimarragarria da. Bai EAEko, Estatuko zein atzerriko salmentek 2020an jaitsiera altua pairatu dute. EAEko zein Estatuko salmentak jaitsi direla adierazi du enpresen % 62k; atzerrikoak jaitsi direla adierazi dutenak % 58 izan dira.

Aldiz enpleguak zein kostuek, Covid-19ak eragindako pandemia betean egon arren, nagusiki mantentzeko joera izan dutela dirudi: enpresen % 59k eta % 57k aldagai horiek mantendu egin direla 2020an adierazi du.

En cuanto a la valoración de la evolución de las diferentes variables que influyen en el negocio, destaca el descenso en las ventas. Tanto en las ventas a nivel de la CAE, como en el Estado y en el extranjero, las ventas han sufrido un fuerte descenso en el 2020. El 62 % de las empresas ha señalado que las ventas han bajado tanto en la CAE como en el Estado, frente al 58 % de las extranjeras.

Por el contrario, tanto el empleo como los costes, a pesar de estar en plena pandemia por Covid-19, parecen haber tendido a mantenerse: el 59 % y el 57 % de las empresas señalan que estas variables se han mantenido durante el 2020.

Aldagaien bilakaera - Evolución de los indicadores




.

## Aurreikuspenak:
### hasi den seihilekoaren inguruko balorazioa

2021. urterako aurreikuspen saldoa ere negatiboa da Sormen Industrietako enpresa panelisten artean. Hau da, 2021erako espektatiba ezkorrak dituzten enpresak espektatiba baikorrak dituztenak baino gehiago dira. Zehazki saldo hori -11 puntukoa izan da panelaren lehen edizio honetan. 2021 urterako aurreikuspen baikorrak dituzte enpresen % 20k eta ezkorrak % 31k. Aurreikuspen normalak dituztenak % 42 dira.

2021erako aurreikuspenak oraindik oro har ezkorrak diren arren, 2020ko emaitzekin alderatuta zertxobait positiboagoak direla ikusten da, eta erantzun ezkorrak eman dituzten enpresen ehunekoaren jaitsiera da horren adierazle garbia (emaitzen kasuan erantzun ezkorra eman duten enpresak % 54 izan dira eta aurreikuspenen kasuan % 31).

Aurreikuspen saldoa aldakorra da sektore ezberdinetan eta aipagarria da bi sektore besterik ez direla izan aurreikuspen saldoa negatiboa dutenak: Moda (-83 puntuko saldoarekin) eta Publizitatea (-42 puntuko saldoarekin). Hizkuntzaren industrian aurreikuspen baikorrak eta ezkorrak dituzten enpresak orekatuta daude (ondorioz saldoa 0 puntukoa da) eta Diseinuan, Bideojokoetan eta Arkitekturan aurreikuspen baikorrak dituzten enpresak gehiago izan dira (saldoak 46 puntu, 25 puntu eta 8 puntukoak dira, hurrenez hurren).

## Expectativas:
### valoración empresarial del semestre entrante

El saldo de previsión para el año 2021 también es negativo entre las empresas panelistas de Industrias Creativas. Es decir, las empresas con expectativas negativas para el 2021 son más que las que tienen expectativas optimistas. Concretamente este saldo ha sido de -11 puntos en esta primera edición del panel. El 20 % de las empresas tiene perspectivas favorables para el 2021 y el 31 % desfavorables. Las previsiones normales son del 42 %.

Aunque las previsiones para el 2021 son todavía pesimistas en su mayoría, se observa que son algo más positivas respecto a la situación del 2020, y un claro indicador de ello es la caída del porcentaje de empresas que han respondido negativamente (54 % en el caso de la situación y 31 % en el caso de las previsiones).

El saldo de previsión es variable en los distintos sectores y cabe destacar que sólo dos sectores han hecho una previsión negativa: Moda (con un saldo de -83 puntos) y Publicidad (con un saldo de -42 puntos). En Industrias de la lengua las empresas con perspectivas favorables y desfavorables están equilibradas (por lo que el saldo es de 0 puntos) y en Diseño, Videojuegos y Arquitectura han sido más las empresas con expectativas optimistas (los saldos han sido de 46, 25 y 8 puntos respectivamente).

Aurreikuspenak - Expectativas (2021)




Aurreikuspenen balantzea – Balance de expectativas: 2021

| | Hizkuntzaren industria / Industrias de la lengua | Bideojokoak / Videojuegos | Diseinua / Diseño | Publizitatea / Publicidad | Moda / Moda | Arkitektura / Arquitectura | Guztira/ Total |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Baikorra/Favorable (%) | 28,6 | 25,0 | 45,5 | 4,2 | 0,0 | 25,0 | **19,7** |
| Normala/Normal (%) | 42,9 | 50,0 | 45,5 | 45,8 | 16,7 | 41,7 | **42,3** |
| Ezkorra/Desfavorable (%) | 28,6 | 0,0 | 0,0 | 45,8 | 83,3 | 16,7 | **31,0** |
| Saldoa (puntuak) /Saldo (puntos) | 0,0 | 25,0 | 45,5 | -41,7 | -83,3 | 8,3 | **-11,3** |

Enpresaren martxan eragiten duten aldagaien aurreikuspen bat egiteko eskatuta, EAEko salmentei dagokienean emaitzetan baino jarrera positiboa agertu dute Sormen Industrietako enpresek. Enpresen laurdenak (% 25) 2021ean EAE mailako salmentek gora egingo dutela uste du; Estatuko salmentak igoko direla uste dutenak % 20 dira eta atzerrikoak igoko direla uste dutenak % 19.

Enpleguak mantentzera egitea espero du enpresen gehiengoak (hala adierazi du % 69ak). Kostuak ere mantendu egingo direla diotenak nagusitzen dira (% 67).

Respecto a las variables que influyen en la marcha de la empresa, las empresas de Industrias Creativas han mostrado una actitud más positiva en las expectativas para el 2021 que en los resultados del 2020 respecto a las ventas en la CAE. Una cuarta parte de las empresas (25 %) cree que las ventas a nivel de la CAE aumentarán en 2021; un 20 % cree que subirán las del Estado y un 19% cree que subirán las del extranjero.

La mayoría de las empresas espera mantener el empleo (el 69 %). Predominan los que dicen que los costes también se mantendrán (67 %).

Aldagaien bilakaera - Evolución de los indicadores (%)



Kulturaren Euskal Behatokia
Observatorio Vasco de la Cultura

## Enpresa-Konfiantza Adierazlea (EKA) eta Enpresa-Konfiantza Adierazle Armonizatua (EKAA)

EAEko Sormen Industrien 2020ko Enpresa-Konfiantza Adierazlea (EKA) -24 puntukoa da.

Sormen Industrien lehen panel honetan Enpresa-Konfiantza Adierazle Armonizatua (EKAA) 100 puntukoa da kasu guztietan (EKAA kalkulatzeko oinarri gisa panelaren lehen edizioko EKA hartzen baita kontutan).

EKA adierazlearen sektorekako azterketa eginda ikus daiteke berriz ere Moda eta Publizatatea sektoreak direla balio negatiboena izan dutenak (-75 puntuko EKA Modaren kasuan eta -42 puntukoa Publizitatean). Balioak hain ezkorrak ez izan arren adierazlea negatiboa da Hizkuntzaren industrian (-19 puntu), Arkitekturan (-9 puntu) eta Bideojokoetan ere (-2 puntu). Kontrara, Diseinuaren sektoreko enpresek lortutako EKA balioa panelaren lehen edizio honetarako positiboa izan da: 6 puntukoa, zehazki.

## Indicador de Confianza Empresarial (ICE) e Índice de Confianza Empresarial Armonizado (ICEA)

El Indicador de Confianza Empresarial (ICE) del 2020 de las Industrias Creativas de la CAE es de -24 puntos.

En este primer panel de Industrias Creativas el Índice de Confianza Empresarial Armonizado (ICEA) es de 100 puntos en todos los casos (ya que para el cálculo del ICEA se toma como base el ICE de la primera edición del panel).

El análisis por sectores del indicador ICE muestra de nuevo que los sectores de Moda y Publicidad son los que presentan un valor más negativo (-75 puntos en el caso de la Moda y -42 puntos en Publicidad). Aunque los valores son menos pesimistas el indicador también es negativo en Industrias de la Lengua (-19 puntos), Arquitectura (-9 puntos) y Videojuegos (-2 puntos). Por el contrario, el valor ICE obtenido por las empresas del sector del Diseño ha sido positivo para esta primera edición del panel, concretamente de 6 puntos.

| | Enpresa-Konfiantza – Confianza Empresarial: 2021 | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Hizkuntzaren industria / Industrias de la lengua | Bideojokoak / Videojuegos | Diseinua / Diseño | Publizitatea / Publicidad | Moda / Moda | Arkitektura / Arquitectura | Guztira /Total |
| Enpresa-Konfiantza Adierazlea (EKA) – Indicador Confianza Empresarial (ICE)[1] | -18,7 | -1,6 | 5,9 | -41,7 | -75,3 | -9,1 | **-24,4** |
| Enpresa-Konfiantza Adierazle Armonizatua (EKAA) – Indicador Confianza Empresarial Armonizado (ICEA) | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | **100,0** |

[1] *EKA -100 eta 100 artekoa da: balio positiboek jardueran aurrerapenak adierazten dituzte eta balio negatiboek atzerapenak.*
*El ICE varía entre -100 y 100: valores positivos indican avances, mientras que datos negativos señalan retrocesos de la actividad.*

## Enpresa jardueran eragiten duten faktoreak

Enpresa jardueran eragiten duten faktoreen artean, *eskariaren jaitsiera* izan da faktorerik seinalatuena. Sormen Industrietako enpresa establezimenduetako arduradunen % 51k faktore horri egotzi dio negozioak izan duen bilakaera.

Faktore edo aldagai horretatik hurrengoetara badago aldea ehunekoari dagokionean; horrela, gehien adierazi den bigarren faktorea *finantziazio/tesoreria arazoena* izan da: enpresen % 18k adierazi du faktore hori. Jarraian *ekoizpen gastuak* daude (%12) eta ondoren *gastu fiskalak* (%5). Galdera honi modu irekian erantzuteko aukera ere eman zaie enpresa panelistei; zehazki enpresen % 14 izan da bestelako faktoreren bat aipatu duena. Bestelako faktore horiek guztiak, modu batera edo bestera, Covid-19ak eragindako pandemiarekin dute zerikusia:

- Tarifen jaitsiera (Hizkuntzaren industria)
- Establezimenduen itxiera (Diseinua, Publizitatea)
- Ordainketetan izandako atzerapenek sortu dituzten likidezia arazoak (Diseinua)
- Pandemiak eragindako komunikazio behar berriak (Publizitatea)
- Ekitaldiak eta ospakizunak egiteko zailtasunak (Moda)

## Factores limitadores de la actividad empresarial

Entre los factores que inciden en la actividad empresarial, el factor más señalado ha sido el *descenso de la demanda*. El 51 % de los responsables de establecimientos empresariales de Industrias Creativas atribuye a este factor la evolución del negocio.

De este factor o variable a los siguientes hay diferencias porcentuales, siendo el segundo factor más señalado el de los *problemas de financiación/tesorería*, con un 18 % de las empresas que señalan este factor. Le siguen los *costes de producción* (12 %) y los *costes fiscales* (5 %). También se ha ofrecido a las empresas panelistas la posibilidad de responder a esta pregunta de forma abierta, y un 14 % de las empresas ha señalado algún otro factor. Todos los factores mencionados de forma abierta están relacionados con la pandemia provocada por el Covid-19:

- Bajada de tarifas (Industria de la lengua)
- Cierre de establecimientos (Diseño, Publicidad)
- Problemas de liquidez por retrasos en los pagos (Diseño)
- Nuevas necesidades de comunicación derivadas de la pandemia (Publicidad)
- Dificultades para la celebración de eventos y celebraciones (Moda)



| | Enpresa jardueran eragiten duten faktoreak – Factores que limitan la actividad empresarial 2020 | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Hizkuntzaren industria / Industrias de la lengua | Bideojokoak / Videojuegos | Diseinua / Diseño | Publizitatea / Publicidad | Moda / Moda | Arkitektura / Arquitectura | Guztira/ Total |
| Ekoizpen gastuak/ Costes de producción (%) | 20,0 | 0,0 | 16,7 | 11,9 | 0,0 | 11,1 | **12,1** |
| Eskariaren jaitsiera/ Descenso de la demanda (%) | 60,0 | 33,3 | 50,0 | 47,6 | 50,0 | 55,6 | **50,9** |
| Finantziazio/tesoreria arazoak Insuficiente financiación/tesorería (%) | 10,0 | 33,3 | 11,1 | 21,4 | 25,0 | 16,7 | **18,1** |
| Gastu fiskalak/ Costes fiscales (%) | 0,0 | 0,0 | 5,6 | 7,1 | 8,3 | 5,6 | **5,2** |
| Bestelakoak/ Otros (%) | 10,0 | 33,3 | 16,7 | 11,9 | 16,7 | 11,1 | **13,8** |

## Giza baliabideak

Panelean parte hartu duten Sormen Industrietako establezimenduetan guztira 798 lanpostu daude eta 10etik 6 baino gehiago emakumezkoak dira (% 62). Ardura postuak dituzten langileak 192 dira, eta postu horietan emakumeen presentzia % 47ra jaisten da.

## Recursos humanos

En las empresas de Industrias Creativas que han participado en el panel hay un total de 798 puestos de trabajo y más de 6 de cada 10 pertenecen a mujeres (62 %). El personal con puestos de responsabilidad asciende a 192, y en estos puestos la presencia de mujeres baja al 47 %.

**Enpresako langile kopurua - Personal de la empresa**




**Ardura postuak dituzten langile kopurua Personal con cargos de responsabilidad**




Emakumezkoak / Mujeres
Gizonezkoak / Hombres

| | | Langile kopurua guztira eta ardura postuak dituzten langile kopurua – Personal total y personal con cargos de responsabilidad 2020 | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Hizkuntzaren industria / Industrias de la lengua | | Bideojokoak / Videojuegos | | Diseinua / Diseño | | Publizitatea / Publicidad | | Moda / Moda | | Arkitektura / Arquitectura | | Guztira/ Total | |
| | | Kop./ Cant. | % | Kop./ Cant. | % | Kop./ Cant. | % | Kop./ Cant. | % | Kop./ Cant. | % | Kop./ Cant. | % | Kop./ Cant. | % |
| Enpresako langileak/ Personal empresa | Em./Muj. | 284 | 72,3 | 17 | 30,4 | 29 | 60,4 | 95 | 50,8 | 44 | 86,3 | 26 | 41,3 | **495** | **62,0** |
| | Giz./Hom. | 109 | 27,7 | 39 | 69,6 | 19 | 39,6 | 92 | 49,2 | 7 | 13,7 | 37 | 58,7 | **303** | **38,0** |
| | Ez-binarioa/ No binarioa | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | **0** | **0,0** |
| | Guztira/Total | 393 | 100,0 | 56 | 100,0 | 48 | 100,0 | 187 | 100,0 | 51 | 100,0 | 63 | 100,0 | **798** | **100,0** |
| Ardura postuak/ Cargos responsables | Em./Muj. | 41 | 67,2 | 1 | 20,0 | 11 | 47,8 | 21 | 33,3 | 10 | 62,5 | 6 | 25,0 | **90** | **46,9** |
| | Giz./Hom. | 20 | 32,8 | 4 | 80,0 | 12 | 52,2 | 42 | 66,7 | 6 | 37,5 | 18 | 75,0 | **102** | **53,1** |
| | Ez-binarioa/ No binarioa | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | **0** | **0,0** |
| | Guztira/Total | 61 | 100,0 | 5 | 100,0 | 23 | 100,0 | 63 | 100,0 | 16 | 100,0 | 24 | 100,0 | **192** | **100,0** |

Langile kopururik altuena biltzen duen sektorea Hizkuntzaren industria da (393 langile), eta jarraian Publizitatea, 187 langilerekin.

Generoaren araberako banaketari dagokionez, emakume langileen ehunekoa batez bestekoaren gainetik kokatzen da Modan eta Hizkuntzaren industrian (% 86koa da emakumezkoen ehunekoa Modan eta % 72koa Hizkuntzaren industrian).

Ardura postuak betetzen dituzten emakumeen kasuan, ehunekoa batez bestekoaren gainetik dago Hizkuntzaren industrian, Modan eta Diseinuan (% 67, % 63 eta % 48, hurrenez hurren).

El sector que concentra el mayor número de empleo es el de Industrias de la Lengua (393 empleadas y empleados), seguido de Publicidad con 187 empleadas y empleados.

En cuanto a la distribución por género, el porcentaje de mujeres trabajadoras se sitúa por encima de la media en Moda y en Industrias de la Lengua (86 % en Moda y 72 % en Industrias de la Lengua).

En el caso de las mujeres que ocupan puestos de responsabilidad, el porcentaje se sitúa por encima de la media en Industrias de la Lengua, Moda y Diseño (67%, 63 % y 48 %, respectivamente).

## Covid-19ak eragindako pandemiaren eragina

Covid-19aren pandemiak izandako eraginaren inguruko galderak ere txertatu dira. Pandemiaren aurrean enpresaren egoera hobekien islatzen duen faktoreaz galdetuta enpresen % 45ak *negozioaren funtzionamendua unean uneko egoerek eskaintzen dituzten aukeretara egokitu duela* adierazi du.

% 42k *funtzionamendu-maila normala edo nahiko normala mantendu dutela* adierazi du.

% 7k *negozio-eredua aldatu edo zabaldu du zerbitzu, produktu edo formatu berriekin*.

% 3k *gutxieneko funtzionamendu-maila mantendu duela* adierazi du, murrizketak aldakorrak izan arren, egoera normalizatu arte itxaron dutelarik.

% 3 izan dira *negozioa itxi behar izan dutenak edo laster itxi beharra aurreikusten dutenak*.

## Efecto de la pandemia por Covid-19

También se han incluido preguntas sobre el impacto de la pandemia de Covid-19. Preguntado por el factor que mejor refleja la situación de la empresa ante la pandemia, el 45 % de las empresas afirma haber adaptado el funcionamiento del negocio a las posibilidades que ofrecen las situaciones del momento.

Un 42 % señala haber mantenido un nivel de funcionamiento normal o bastante normal.

Un 7 % ha cambiado o ampliado su modelo de negocio con nuevos servicios, productos o formatos.

Un 3 % señala mantener un nivel mínimo de funcionamiento, aunque las reducciones son variables, esperando a que la situación se normalice.

Ha sido un 3 % los que han tenido que cerrar el negocio o los que prevén cerrarlo en breve.

Covid-19ak eragindako pandemiaren aurreko egoera
Situación ante la pandemia por Covid-19 (%)




| | Covid-19ak eragindako pandemiaren aurreko egoera<br>Situación ante la pandemia por Covid-19 | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Hizkuntzaren industria / Industrias de la lengua | Bideojokoak / Videojuegos | Diseinu / Diseño | Publizitatea / Publicidad | Moda / Moda | Arkitektura / Arquitectura | Guztira / Total |
| Funtzionamendu-maila normala edo nahiko normala mantendu dut, pandemiaren baldintzak gorabehera./ He mantenido un nivel de funcionamiento normal o bastante normal a pesar de las condiciones de la pandemia (%) | 50,0 | 25,0 | 54,5 | 33,3 | 0,0 | 66,7 | 42,3 |
| Murrizketak aldakorrak izan arren, egoera normalizatu arte itxarotea erabaki dut nire jarduera garatzeko, gutxieneko funtzionamendu-maila mantenduz./ A pesar de las restricciones cambiantes, he decidido esperar a que se normalice la situación para desarrollar mi actividad manteniendo un nivel mínimo de funcionamiento (%) | 7,1 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 16,7 | 0,0 | 2,8 |
| Negozioaren funtzionamendua unean uneko egoerek eskaintzen dituzten aukeretara egokitu dut./ He adaptado el funcionamiento del negocio a las posibildades que ofrecen las circunstancias en cada momento (%) | 21,4 | 25,0 | 45,5 | 58,3 | 83,3 | 33,3 | 45,1 |
| Negozio-eredua aldatu edo zabaldu dut zerbitzu, produktu edo formatu berriekin / He cambiado o ampliado el modelo de negocio con nuevos servicios, productos o formatos (%). | 14,3 | 25,0 | 0,0 | 8,3 | 0,0 | 0,0 | 7,0 |
| Negozioa itxi behar izan dut edo laster itxi behar izatea aurreikusten dut. / He tenido que cerrar el negocio o preveo tener que hacerlo próximamente (%) | 7,1 | 25,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 2,8 |

Covid-19ari aurre egiteko hartutako neurriez galdetuta, dagoeneko hartu dituzten neurrien artean *telelana bultzatzea* izan da zabalduena edo enpresek gehien egin dutena (kontsultatutako enpresen % 76k pandemiari aurre egiteko neurri modura telelana bultzatu duela adierazi du). Bigarren neurri aipatuena *presentzia eta komunikazio digitala hobetzea* izan da (enpresen % 75ak aipatu du neurri hori). Eta hirugarren postuan, *zerbitzuak, produktuak edo formatuak egokitzea* (% 55).

Etorkizunean hartu beharreko neurriez galdetuta ordea aldaketak nabari dira erantzunetan. Lehendabizi *presentzia eta komunikazio digitala hobetzea* aipatzen bada ere (% 72), bigarren eta hirugarren postuan berrikuntza eta prestakuntzarekin loturiko alderdiak daude: *langileen prestakuntza hobetzea* (% 69) eta *lan-prozesuetan edo barne-kudeaketan berrikuntzak egitea* (% 62), zehazki.

Hartutako neurriak etorkizunean mantenduko dituzten edo ez galdetuta, *presentzia eta komunikazio digitalaren hobekuntza* eta *langileen prestakuntzaren hobekuntza* neurri iraunkor modura ikusten du enpresen % 65ak eta % 62ak, hurrenez hurren.

Preguntando por las medidas adoptadas para hacer frente al Covid-19, entre las medidas que ya han adoptado, la más extendida ha sido la de *impulsar el teletrabajo* (el 76 % de las empresas consultadas afirma haber impulsado el teletrabajo). La segunda medida más mencionada ha sido la *mejora de la presencia y de la comunicación digital*, mencionada por el 75 % de las empresas. Y en tercer lugar, *la adaptación de servicios, productos o formatos* (55 %).

En cuanto a las medidas a adoptar en el futuro, se aprecian cambios en las respuestas. Aunque en primer lugar se menciona *la mejora de la presencia y la comunicación digital* (72 %), en segundo y tercer lugar se sitúan los aspectos relacionados con la innovación y la formación: *la mejora de la formación del personal* (69 %) y la *innovación en los procesos de trabajo o gestión interna* (62 %).

A la pregunta de si las medidas adoptadas se mantendrán o no en el futuro, la *mejora de la presencia y la comunicación digital* y la *mejora de la formación de los trabajadores* es vista por el 65 % y el 62 % de las empresas como una medida permanente.

Covid-19ak eragindako pandemiari aurre egiteko neurriak -
Medidas para hacer frente a la pandemia por Covid-19 (%)




Covid-19ari aurre egiteko hartutako neurriak sektoreka aztertuta, Arkitekturan (% 92), Hizkuntzaren industrian (% 86), Bideojokoetan (% 75) eta Publizitatean (% 75) *telelana bultzatzea* izan da hartutako neurririk ohikoena. Neurri hori modu iraunkorrean mantentzeari dagokionean aldaketak daude sektorez sektore, eta Hizkuntzaren industrian hartu da batez ere neurri hori modu iraunkorrean (sektoreko enpresen % 71k horrela adierazi du).

Modan eta Diseinuan garrantzia handiagoa eman zaio *presentzia eta komunikazio digitala hobetzeari* (% 83 eta % 82, hurrenez hurren); gainera, bi kasuetan neurria modu iraunkorrean hartu dutela dioten enpresen ehunekoa mantendu egiten da.

Aipagarria da Diseinuaren kasuan ohiko neurria izan dela *beste eragile batzuekin aliantzak bilatu edo sendotzea*. Faktore honen ehunekoa batez bestekoaren oso gainetik kokatzen da, enpresen % 73k eman baitu erantzun hori sektore horretan.

Analizando por sectores las medidas adoptadas para hacer frente al Covid-19, el impulso del teletrabajo ha sido la medida más habitual en Arquitectura (92 %), Industrias de la Lengua (86 %), Videojuegos (75 %) y Publicidad (75 %). En cuanto al mantenimiento permanente de esta medida, hay cambios por sectores, y es sobre todo en Industrias de la Lengua donde se ha implantado la medida de manera permanente (así lo indica el 71 % de las empresas del sector).

En Moda y Diseño se ha dado más importancia a la mejora de la presencia y la comunicación digital (83 % y 82 %, respectivamente) y se mantiene el porcentaje de empresas que dicen haber adoptado la medida de forma permanente en ambos casos.

Cabe destacar que en el caso del Diseño el buscar o consolidar alianzas con otros agentes ha sido una medida bastante habitual. El porcentaje de este factor se sitúa muy por encima de la media, con un 73 % de empresas que dan esta respuesta en este sector.

| | | Covid-19ak eragindako pandemiari aurre egiteko neurriak / Medidas para hacer frente a la pandemia por Covid-19 | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Hizkuntzaren industria / Industrias de la lengua | Bideojokoak / Videojuegos | Diseinua / Diseño | Publizitatea / Publicidad | Moda / Moda | Arkitektura / Arquitectura | Guztira/ Total |
| Telelana bultzatzea | Neurria dagoeneko hartu duzu | 85,7 | 75,0 | 63,6 | 75,0 | 50,0 | 91,7 | **76,1** |
| | Etorkizunean neurria hartu beharko duzu | 71,4 | 50,0 | 45,5 | 50,0 | 0,0 | 58,3 | **50,7** |
| | Neurria iraganean hartu behar zenuen | 42,9 | 25,0 | 18,2 | 20,8 | 33,3 | 16,7 | **25,4** |
| | Neurria modu iraunkorrean hartu duzu edo hartuko duzu | 71,4 | 50,0 | 45,5 | 54,2 | 0,0 | 50,0 | **50,7** |
| Presentzia eta komunikazio digitala hobetzea | Neurria dagoeneko hartu duzu | 78,6 | 25,0 | 81,8 | 70,8 | 83,3 | 83,3 | **74,6** |
| | Etorkizunean neurria hartu beharko duzu | 64,3 | 25,0 | 63,6 | 79,2 | 83,3 | 83,3 | **71,8** |
| | Neurria iraganean hartu behar zenuen | 57,1 | 25,0 | 45,5 | 50,0 | 50,0 | 33,3 | **46,5** |
| | Neurria modu iraunkorrean hartu duzu edo hartuko duzu | 64,3 | 25,0 | 81,8 | 62,5 | 83,3 | 58,3 | **64,8** |
| Hurbileko enpresa hornitzaileetara aldatzea | Neurria dagoeneko hartu duzu | 21,4 | 0,0 | 18,2 | 16,7 | 33,3 | 8,3 | **16,9** |
| | Etorkizunean neurria hartu beharko duzu | 28,6 | 25,0 | 27,3 | 29,2 | 16,7 | 8,3 | **23,9** |
| | Neurria iraganean hartu behar zenuen | 14,3 | 25,0 | 18,2 | 12,5 | 16,7 | 8,3 | **14,1** |
| | Neurria modu iraunkorrean hartu duzu edo hartuko duzu | 21,4 | 25,0 | 27,3 | 25,0 | 16,7 | 8,3 | **21,1** |
| Zerbitzuak, produktuak eta formatuak egokitzea | Neurria dagoeneko hartu duzu | 42,9 | 25,0 | 63,6 | 70,8 | 66,7 | 33,3 | **54,9** |
| | Etorkizunean neurria hartu beharko duzu | 50,0 | 50,0 | 90,9 | 58,3 | 66,7 | 50,0 | **60,6** |
| | Neurria iraganean hartu behar zenuen | 35,7 | 50,0 | 36,4 | 45,8 | 16,7 | 16,7 | **35,2** |
| | Neurria modu iraunkorrean hartu duzu edo hartuko duzu | 50,0 | 50,0 | 81,8 | 66,7 | 33,3 | 25,0 | **54,9** |
| Zerbitzu, produktu eta formatu berriak garatzea | Neurria dagoeneko hartu duzu | 42,9 | 50,0 | 63,6 | 54,2 | 66,7 | 16,7 | **47,9** |
| | Etorkizunean neurria hartu beharko duzu | 35,7 | 50,0 | 72,7 | 58,3 | 33,3 | 50,0 | **52,1** |
| | Neurria iraganean hartu behar zenuen | 35,7 | 50,0 | 36,4 | 54,2 | 0,0 | 16,7 | **36,6** |
| | Neurria modu iraunkorrean hartu duzu edo hartuko duzu | 35,7 | 50,0 | 81,8 | 54,2 | 50,0 | 16,7 | **47,9** |
| Lan-prozesuetan edo barne-kudeaketan berrikuntzak egitea | Neurria dagoeneko hartu duzu | 57,1 | 50,0 | 45,5 | 54,2 | 50,0 | 41,7 | **50,7** |
| | Etorkizunean neurria hartu beharko duzu | 64,3 | 50,0 | 72,7 | 62,5 | 66,7 | 50,0 | **62,0** |
| | Neurria iraganean hartu behar zenuen | 50,0 | 25,0 | 54,5 | 54,2 | 33,3 | 41,7 | **47,9** |
| | Neurria modu iraunkorrean hartu duzu edo hartuko duzu | 64,3 | 50,0 | 72,7 | 54,2 | 50,0 | 33,3 | **54,9** |
| Langileen prestakuntza hobetzea | Neurria dagoeneko hartu duzu | 57,1 | 50,0 | 36,4 | 54,2 | 50,0 | 50,0 | **50,7** |
| | Etorkizunean neurria hartu beharko duzu | 64,3 | 50,0 | 63,6 | 66,7 | 66,7 | 91,7 | **69,0** |
| | Neurria iraganean hartu behar zenuen | 42,9 | 25,0 | 45,5 | 37,5 | 33,3 | 25,0 | **36,6** |
| | Neurria modu iraunkorrean hartu duzu edo hartuko duzu | 57,1 | 50,0 | 63,6 | 66,7 | 50,0 | 66,7 | **62,0** |
| Beste eragile batzuekin aliantzak bilatzea edo sendotzea | Neurria dagoeneko hartu duzu | 42,9 | 0,0 | 72,7 | 41,7 | 33,3 | 33,3 | **42,3** |
| | Etorkizunean neurria hartu beharko duzu | 42,9 | 50,0 | 72,7 | 62,5 | 50,0 | 58,3 | **57,7** |
| | Neurria iraganean hartu behar zenuen | 35,7 | 25,0 | 45,5 | 33,3 | 16,7 | 25,0 | **32,4** |
| | Neurria modu iraunkorrean hartu duzu edo hartuko duzu | 35,7 | 25,0 | 72,7 | 54,2 | 50,0 | 25,0 | **46,5** |